



Kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza euskararekin lotzen dituen lehen ziurtagiri ofiziala eta publikoa da.

ENPRESENTZAKO EUSKARAREN ERABILERA EBALUATZEKO ZIURTAGIRIAREN BATZORDE NAGUSIA AURKEZTU DUTE

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Kalitatearen Sustapenerako Euskal Iraskundea (Euskalit) buru direla, erakunde publikoek eta CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA enpresari-elkartek osatzen dute.

Enpresetan **kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza euskararekin** lotzen dituen **lehen ziurtagiri ofizial eta publikoa** kudeatuko duen **Kudeaketa Batzordea** aurkeztu dute Bilbon 2007ko otsailaren 21ean. Proiektu hau bideratu, babestu eta zuzenduko duen Kudeaketa Batzordea (erakunde publikoek eta CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA enpresari-elkartek osatua) eratu da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta EUSKALIT erakundeak hitzarmena sinatu zuten 2006ko urrian enpresetako hizkuntza-normalizaziorako prozesuen ebaluazio-eskema eta zertifikazio-eredua zehazteko. Hitzarmenean jasotakoa betetzeko, urritik hona, EUSKALIT eta HPS elkarlanean aritu dira enpresetan hizkuntza-kudeaketaren ebaluaziorako eta zertifikaziorako kalitate-ziurtagiriaren proiektua hezurmamitzen, gaur egun indarrean dauden bikaintasun, kalitate eta berrikuntza parametroetan oinarrituta. Batzorde honen lehen zereginetako bat izango da urtean zehar sei esperientzia pilotu abiaraztea tamaina eta jardun ezberdineko enpresetan, ebaluazio sistema hobetze aldera.

“Irabazi behar” den ziurtagiria

Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Bilbon egin prentsaurrekoan adierazi duenez, enpresetan euskararen erabilera zertifikatzeko ziurtagiri berri honengatik enpresek “ez dute dirurik ordaindu beharko”, kostua “HPSk hartzen baitu bere gain”. Izan ere, ez da ordaindutako ziurtagiri bat, “irabazi behar dena baizik”, zehaztu du sailburuordeak, honako mahaikideak ondoan izan dituelarik: Mikel Ugalde, Euskalit-eko zuzendaria; Federico de Verástegui, Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua; Gotzon Lobera jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria; Xabier Huitzi jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria; Tomas Ordeñana jauna, Larrabetzuko alkatea, EUDELen izenean; Vitoriano Susperregi jauna, CONFEBASKeko lehendakariordea, eta baita ere, Jon Etxabe, ADEGIren izenean; Fran Azpiazu, CEBEK-enean, eta Jose Manuel Lazkano, SEA ordezkatzuz.

Baztarrikaren arabera, “ez dira atzokoak” arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera “areagotzeko ahaleginak”. Bere ustez, “garaia iritsi da” esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko egiten ari diren saioak eta plangintzak “ebaluatze eta errekonozitzeko”, era bateratu eta sistematizatuan. Gaineratu du “konpromiso horixe” hartu zutela enpresari-elkartekin eta EAEko sindikatu nagusienekin sinatutako hitzarmenetan, eta orain, HPSk eta Euskalitek diseinatutako proiektuaren eskema eta ebaluazio- eta zertifikazio-eredua “balidatzeko eta probatzeko garaia heldu” zaiela.



Eleaniztasunean dago gakoa

Sailburuordeak esan du enpresek honetan “dena” dutela irabazteko, “eleaniztasuna baita gizartearen eta enpresaren oraina eta geroa”. “Enpresek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituzte, eta abantaila lehiakor bat irabaziko dute euskarari heltzen dioteneke, beren zerbitzuari balio erantsia emanez eta etengabe berritzeko dinamismoa erakutsiz”, azaldu du Baztarririkak, zeinaren ustez zenbat eta leku gehiago egin euskarari, zenbat eta hobeto eman arnasa hizkuntzen arteko elkarbizitzari, “orduan eta berrikuntza, modernitate eta dinamismo handiagoa erakutsiko” duten enpresek.

Bere irudiz, euskararentzat berarentzat ere “berri ona” da **kalitatea**, **bikaintasuna** eta **berrikuntza** euskararekin lotuko dituen ziurtagiria izatea; izan ere, eskolan euskaldundu eta euskaraz ikasketak jaso dituen gazteari euskarari “bere tokia ematen dion lan-mundura eramane behar dugulako”.

Bestalde, esan du gizarteko hainbat esparrutan euskara erabiltzearen alde “egiten ari garen ahaleginarekin uztartu behar eta nahi” dutela lan-mundua; “ezin dugu euskara eskolaren teilatupean bakarrik utzi. Hori da gure erantzukizuna eta ekimen hau ere beste urrats bat da bide horretan”.

Kudeaketa Batzordearen osaera

Kudeaketa Batzordea herri-administrazioetako ordezkariak eta enpresaburuen elkarteetako ordezkariak osatzen dute, Euskaliten eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lehendakaritzapean. Herri-administrazioen izenean, hiru foru-aldundiak eta EUDEL dira Jaurlaritzarekin batera. Eta, esan bezala, CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA enpresaburuen elkarteak daude.

Kudeaketa Batzordean, beraz, ordezkaturik daude herri-administrazioetako hiru mailak: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta EUDEL, udalen izenean. Izan ere, esan du sailburuordeak, “ziurtagiriaren proiektua kolidergoan ari baikara garatzen, guztiok bat eginik, LanHitzen kasuan bezalaxe”.

Bestalde, ekinbide honetan enpresari-erakunde guztietako ordezkariak bidelagun dituztela esan du Baztarririkak; joan den urtean elkarrekin izenpetutako hitzarmenean jasotakoari jarraiki. Eurak dira, euren enpresetan gestio eta kalitate eredu berritzaileak ezartzeko lanetan ari direnak, eurak dira etengabeko hobekuntzaren aldeko apustu sendoa egin dutenak eta euren beharra dugu, ez bairik gabe, enpresetan hizkuntza-kudeaketaren ebaluazio eta zertifikazio ereduak balidatzeko eta ezartzeko.

Kudeaketa Batzordearen egiteko nagusiak honakoak izango dira:



1. Enpresetan, eta esparru sozioekonomikoan orohar, euskararen erabilera areagotzeko hizkuntza-kudeaketaren ebaluazio eta zertifikazio eredia ontzat ematea eta frogatzea
2. Ebaluaziorako eta zertifikaziorako finkatutako prozesuen eta jarraibideen egokitasuna eta zuzentasuna bermatzea
3. Horri guztiari loturiko zabalkunde, sentsibilizazio eta sustapen ekintzak eta komunikazio-ildoak ontzat ematea
4. Prestakuntza-egitarauen definizioa eta ekintzak nahiz ebaluaketa bideratzeko bestelako baliabideak eta laguntzak balidatzea

Hortaz, 2007an zehar, gaur aurkeztu den Kudeaketa Batzordeak balidatu eta probatu egingo du Euskalit-ek eta HPSk diseinatutako prozesua eta aitortza-modua. Hau da, Kudeaketa Batzordeak balidatuko du besteak beste: zein eratako erakunderi dagoen zuzenduta zertifikazioa; nola osatuko den ebaluatzaile taldea eta nola kudeatuko den hori; ebaluatzaileentzako nahiz ziurtagiria izan nahi duten enpresentzako formazio-sistema; ebaluazio eta zertifikazioaren gestio-prozesua urratsez urrats; ebaluatuko diren edukiak eta elementuak nahiz zertifikazio-mailak.

Lan horretan laguntzeko, Kudeaketa Batzordeak Aholku Batzordea eratuko du.

Administrazioen eta enpresari-erakundeen babesaz, ebaluazio eta zertifikazio sistema publiko eta ofizial honek:

- Hizkuntza-kudeaketako prozesuak abian dituzten enpresei egindako lanaren aitortza eta berme instituzionala eskainiko die.
- Enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko dinamika sortuko du, etengabeko hobekuntza bultzatuz.
- Kalitatearekin eta kudeaketa-bikaintasunarekin lotuko du euskara, sistema landu, objektibo, xehe eta zehatzaz baliatuta.

LanHitz programa

Esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera bultzatzea da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarentzat legealdi honetako lehentasun nagusienetakoa. Hori dela eta, Baztarririk gogora ekarri du hiru foru-aldundiekin, EUDELekin eta Eusko Jaurlaritzako Industria eta Lan sailekin batera, joan den irailean martxan jarritako *LanHitz* programa-markoa, alor sozio-ekonomikoan euskararen “presentzia eta erabilera areagotzeko”.



Bere esanetan, ekimen integral horretan kokatu beharra dago arlo sozio-ekonomikorako euskararen erabilera “ebaluatze eta errekonozitzeko sistema”. Izan ere, *LanHitz* programak lau zutoin baititu oinarri:

- -Lehendabizikoa, adostasuna, konpromisoa eta elkarlana lan munduko agente naturalen artean: horretara datoz enpresari-elkartekin (CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA) eta EAEko sindikatu nagusiekin (ELA, CCOO, LAB eta UGT) sinatutako hitzarmenak.
- -Bigarrena, euskara plana martxan jarri nahi duten enpresa guztiei aholkularitza eta tresnak eskaintzea.
- -Hirugarrena, laguntza ekonomikoak ere eskaintzea euskara plana garatu nahi duten enpresei; aurtun 2.300.000 euro jarri ditugu helburu horretarako, iaz baino % 26 gehiago.
- -Eta laugarren zutoina da, kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza euskararekin lotuko dituen **ziurtagiri publikoa**, enpresetako hizkuntza-kudeaketa eta euskararen erabilera ebaluatze eta aitortze **ziurtagiri ofiziala**, enpresa munduan ohikoak diren bikaintasun, kalitate eta berrikuntza parametroen arabera ziurtagiri ofiziala, hain zuzen.

Eskertza EUSKALIT-i

EUSKALIT 1992. urtean Eusko Jaurlaritzaren bultzadaz sortutako erakundea da, eta bere xedea Euskadiko esparru guztietan kudeaketaren hobekuntza eta berriztapenaren alde egitea da. Horren harira, sailburuordeak nabarmendu du, bidelagun “ezin hobea” izan duela Eusko Jaurlaritzak EUSKALIT; izan ere, kalitatearen kudeaketa-sistemetan bere ezagupena eta eskarmentua “ezinbestekoak izan zaizkigu” enpresetako euskararen erabilera egun organizazio pribatuetan indarrean diren kalitate-parametroen arabera modu sistematizatuan aitortze eta ebaluatze, mamia eta prozedura “finkatu, bultzatu eta garatzeko”.



Se trata del primer certificado público y oficial para empresas que asocia la calidad, la excelencia y la innovación con el euskera

SE HA PRESENTADO EL COMITÉ DE GESTIÓN DEL CERTIFICADO DE EUSKERA PARA LAS EMPRESAS

Bajo el liderazgo de la Viceconsejería de Política Lingüística y EUSKALIT (Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad), está formado por las entidades públicas y por las asociaciones de empresarios CONFEBASK, ADEGI, CEBEK y SEA.

El **Comité de Gestión que guiará, apoyará y dirigirá el proyecto de certificado de calidad para la evaluación del uso del euskera en las empresas ya está en marcha.** Este Comité del primer certificado oficial y público, que asocia calidad, excelencia, innovación y euskera, y que podría estar en marcha para el año que viene, lo componen los principales agentes socioeconómicos públicos y las asociaciones de empresarios (CONFEBASK, ADEGI, CEBEK eta SEA). En octubre de 2006 Viceconsejería de Política Lingüística y EUSKALIT suscribieron un convenio para ofrecer a las entidades que integran el euskara en su actividad diaria un instrumento adecuado de evaluación, basándose en los criterios y parámetros recogidos en los sistemas de certificación de calidad vigentes hoy en día. Una de las primeras labores de dicho Comité será llevar a cabo durante este año seis experiencias piloto en empresas de diferente tamaño y actividad de cara a optimizar el sistema de evaluación.

El viceconsejero de Política Lingüística, Patxi Baztarrika, quien ha comparecido hoy en rueda de prensa en Bilbao, ha afirmado que este nuevo certificado de calidad para la evaluación del uso del euskera en las empresas no supondrá costo alguno para las empresas, por cuanto lo costea la Viceconsejería de Política Lingüística. “No es un certificado que hay que pagar, sino que hay que ganar”.

Según Baztarrika, los esfuerzos para incrementar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico “no son nuevos”. En su opinión, ha llegado el momento de “evaluar y reconocer” las actuaciones y planes que se están llevando a cabo para fomentar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico, de forma “conjunta y sistematizada”. Ha recordado que también en los convenios firmados con las asociaciones empresariales y con los sindicatos mayoritarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco “adquirimos ese compromiso”. Y ahora ha llegado el momento de “validar y testar” el esquema y el modelo de evaluación y certificación del proyecto diseñado por la Viceconsejería de Política Lingüística y EUSKALIT, ha agregado Baztarrika, quien ha comparecido junto a Mikel Ugalde, director de Euskaliti, Federico de Verástegui, Diputado de Cultura de la Diputación Foral de Álava, Gotzon Lobera, director General de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia, Xabier Huitzi, director General de Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Tomás Ordeñana, Alcalde de Larrabetzu, en representación de EUDEL, y Vitoriano Susperregi, vicepresidente de CONFEBASK, así como Fran Azpiazu, de CEBEK, Jon Etxabe, de ADEGI y José Manuel Lazkano, de SEA..



El viceconsejero ha resaltado que en dicho cometido las empresas tienen “todo por ganar”, ya que tanto el futuro y el presente de éstas y de la sociedad misma está en el multilingüismo. “En las empresas se emplea más de un idioma, y en ese sentido, aquellos que también apuesten por el euskera aportarán un valor añadido a su servicio, mostrando asimismo una dinámica de innovación continua”, ha indicado Baztarrika, para quien en tanto cuanto “más sitio” se haga al euskera, en tanto en cuanto “más aire se proporcione” a la convivencia entre lenguas, mayor “innovación, modernidad y dinamismo” mostrarán las empresas.

Para Baztarrika la puesta en marcha de este primer certificado oficial y “público” que aunarà al euskera con la calidad, la excelencia y la innovación también es una “buena noticia” para este idioma, por cuanto facilitará su uso en el mundo sociolaboral al joven que se ha euskaldunizado y realizado sus estudios en lengua vasca.

Por otra parte, ha considerado que el esfuerzo que “estamos realizando para el uso del euskera en varios ámbitos “debe y tiene” que extenderse al mundo laboral, pues el euskera no puede limitarse “al tejado de la escuela”. “Asumiendo nuestra responsabilidad, esta iniciativa es un paso mas en la consecución de ese objetivo”.

Composición del Comité de Gestión

Baztarrika ha explicado que el Comité de Gestión lo integran los representantes de las Administraciones públicas y de las asociaciones empresariales, bajo la copresidencia de la Viceconsejería de Política Lingüística y EUSKALIT. Así, en el Comité de Gestión quedan representados los tres niveles de las administraciones públicas: el Gobierno Vasco, las tres diputaciones forales y EUDEL, en representación de todos los ayuntamientos. Del mismo modo que en el programa LanHitz el proyecto de certificado “también lo estamos desarrollando en colaboración y coliderazgo”, ha añadido el viceconsejero, quien ha destacado “la implicación” las asociaciones empresariales (CONFEBASK, ADEGI, CEBEK y SEA). “En definitiva, son ellos los que trabajan para establecer modelos de gestión y calidad innovadores en sus empresas, los que han apostado firmemente por la mejora permanente, y sin duda alguna, son absolutamente necesarios para validar e implantar el modelo de evaluación y certificación de la gestión lingüística en las empresas”.

Funciones principales

El Comité de Gestión tendrá las siguientes funciones principales:

1. Validar y testear el modelo de evaluación y certificación de gestión lingüística para fomentar el uso del euskera en las empresas y en el ámbito socioeconómico, en general.
2. Garantizar la adecuación y corrección de los procesos fijados para la evaluación y la certificación.



3. Validar las actividades de difusión, sensibilización y promoción, y las estrategias de comunicación.
4. Validar los programas de formación y demás recursos necesarios para materializar la evaluación y certificación.

Por lo tanto, a lo largo del 2007, el Comité de Gestión hoy presentado validará y testeará el sistema de evaluación y certificación diseñado por Euskalit y la Viceconsejería de Política Lingüística.

Entre otros elementos, el Comité de Gestión validará: el tipo de entidad a la que está dirigida la certificación; cómo se constituirá el club de evaluadores y su forma de gestión; el sistema de formación para el personal evaluador y para las empresas que quieran obtener el certificado; el proceso de gestión de la evaluación y de la certificación en sí; y los contenidos y elementos a evaluar, así como los niveles de certificación.

El Comité de Gestión contará con un Comité Asesor para el desarrollo de sus funciones.

Con el apoyo de las administraciones y de las organizaciones empresariales, este sistema de evaluación y certificación público y oficial:

- Ofrecerá a las empresas con procesos de gestión lingüística en marcha, el reconocimiento y el aval institucional al esfuerzo realizado.
- Generará una dinámica creciente y estimulante del uso y presencia del euskera en las empresas, fomentando la mejora continua.
- Asociará el euskera con la calidad, la innovación y la excelencia en la gestión, contando para ello con un sistema objetivo y detallado.

Programa LanHitz

Una de las principales prioridades de la Viceconsejería de Política Lingüística en esta legislatura, ha declarado Baztarrika, es la de “fomentar el uso” del euskera en el ámbito socioeconómico. En este sentido ha mencionado el programa-marco *LanHitz*, programa para el fomento del uso del euskera en el ámbito socioeconómico; programa que, junto con las tres diputaciones forales, EUDEL, y los departamentos de Industria y Trabajo del Gobierno Vasco, se puso en marcha en septiembre del pasado año y “se está llevando a las empresas en este momento”.

Y es precisamente en dicha iniciativa integral donde se sitúa el sistema para la evaluación y el reconocimiento del uso del euskera en el ámbito socioeconómico, ha expuesto el viceconsejero, antes de precisar que el programa *LanHitz* se basa en cuatro pilares:



En primer lugar, el acuerdo, el consenso, el compromiso y el trabajo conjunto con los agentes naturales del mundo laboral: de ahí los convenios suscritos con las asociaciones empresariales (CONFEBASK, ADEGI, CEBEK y SEA) y con los sindicatos más representativos de la CAPV (ELA, CCOO, LAB y UGT).

En segundo lugar, ofrecer asesoramiento y herramientas a todas las empresas que quieran poner en marcha un plan de euskera.

En tercer lugar, ofrecer también ayudas económicas a las empresas que quieran desarrollar un plan de euskera. A través de la convocatoria pública, este año destinaremos a tal fin, 2.300.000 euros, un 26% más que el año pasado.

Y el cuarto pilar, como ya expresamos cuando presentamos LanHitz, es el **certificado público** que asocia calidad, excelencia, innovación y euskera, el **certificado oficial** para evaluar y reconocer la gestión lingüística y el uso del euskera de las empresas, es decir, el **certificado oficial y público** que atiende a los parámetros de excelencia, calidad e innovación habituales en el mundo empresarial.

Agradecimiento a EUSKALIT

El Gobierno Vasco ha contado con la inestimable colaboración de EUSKALIT, la Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad, organización creada a instancias del Gobierno Vasco en 1992 y que tiene como misión la promoción de la innovación y mejora de la gestión. “Para nosotros ha sido imprescindible su conocimiento y experiencia de los sistemas de gestión de calidad a la hora de configurar el sistema de evaluación y reconocimiento del uso del euskera en las empresas según los parámetros de calidad vigentes en las organizaciones privadas, y a la hora de establecer, impulsar y desarrollar su contenido y procedimientos”, ha concluido Baztarrika.